



Jokabide kodea 2025

Legearekiko, pertsonetikiko
eta ingurumenarekiko gure
konpromisoa

EDIZIOA	ONARPEN DATA	APLIKAZIO DATA	KOMENTARIOAK
1	08/05/08	08/05/08	Kodearen onarpena
2	09/01/14	09/01/14	“3.3. Ustelkeriaren eta eroskeriaren aurka” izeneko atala gehitzea
3	15/05/15	15/05/15	“3.4 Jokaera ez egokien komunikazioa” eta “5.10 Haurren lana” atalak gehitzea
4	21/09/16	21/09/16	2.1, 2.2., 2.4, 2.5 sailetan aldaketak. 2.6 puntuaren ezababatzea (kodearen kontratu balioa aholkulari eta hornitzaileentzat). 3.1, 3.2, 3.3.1, 4.1, 5.12. sailetan aldaketak. 5.15 puntu berria (lan leku segurua, garbia eta osasungarria). 8.1. y 10 sailetan aldaketak (Hornitzaileen aurre- ebaluazioa), eta 10.1, 10.2 eta 10.3 puntuen ezabatzea.
5	06/11/2017	06/11/2017	3.3.2. atalean aldaketa: paragrafoa gehitzea (jazarpenaren prozedura) 3.4 atalean helbide elektronikoen aldaketa eta esaldia gehitzea (konfidentzialtasun bermea)
6	03/11/2021	03/11/2021	Copreci lantegien zerrenda eguneratzea azken orrian
7	11/04/2024	11/04/2024	4.4 Konpetentzia askea eta konpetentzia leiala atala gehitu
8	16/04/2025	16/04/2025	Arau hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzen duen otsailaren 20ko 2/2023 Legea (IBL-Informatzailearen Babeserako Legea) egokitzea.



1. Sarrera

Konpromiso sendoa

1.1 Helburua

Jokabide Kode honek (aurrerantzean “Kodea”) duen helburua da enplegatu eta kontu ikuskatzaile guztiei (aurrerantzean “pertsona nabarmenak”) zein bezero, hornitzaile eta erakunde publiko eta pribatu guztiei (aurrerantzean “hirugarrenak”) gogoraraztea Copreci Taldeak konpromisoa duela bera diharduen herrialdeetan indarrean dauden lege eta arauak betetzeko edo, herrialde horietan araudia hain zorrotza ez bada, Kode honetan zehaztutakoa.

1.2 Sekretu profesionala

Kode honetako klausulak betetzeko funtsezkoa da lankidetzaren, konfiantza eta errespetua egotea, bai eta hirugarrenen eta Copreci Taldeak izendatutako pertsona nabarmenen arteko oharpen, eztabaida eta jakinarazpenei tratatu konfidentziala ematea ere.



2. Aplikazio eremua

8 herrialdetatik mundu osora iristen gara

2.1 Kode hau nori aplikatuko zaion

Copreci Taldeko pertsona guztiei edo Copreci Taldearen izenean edo ordezkarietan jarduten duten guztiei, bai eta produkzio planta guztietako pertsona guztiei ere.

2.2 Monitorizazioaren ardura duen kontrol egitura

Kodea betetzen den ala ez monitorizatzea Betetze Batzordearen ardura da. Hauek dira, laburtuta, Batzorde horren zereginak:

a) Copreci Taldeko pertsona guztiei eta ematea interesgarritzat jotzen diren guztiei Kodearen berri ematen zaiela ziurtatzea.

- b) Kodearen berrikuspena
- c) Konfidentzialtasuna zaintzea

2.3 Kodearen jakinarazpena

Jokabide Kode hau Copreci Taldeko langile guztiei jakinaraziko zaie, horretarako prestatu diren harrera eskuliburuaren bitartez. Eskuliburu horietan Jokabide Kodea irakurri eta betetzeko obligazioa ezarriko da.

Kodean aldaketa garrantzitsuak egiten diren bakoitzean edota Kontseilu Errektoreak egokitzen jotzen duen bakoitzean, jakinarazpenak egingo dira puntu hauetan jasotako jarraibideen arabera

Jokabide kodearen garapen eta monitorizazio ardura	Betetze Batzordea
Jokabide kodearen onarpen ardura	Kontseilu Errektorea

2.3.1 Copreci Aretxabaleta

	EGITEKOA	BIDEA	ARDURADUNA
1	Kontseilu Sozial eta Zaintza Batzordeari jakinaraztea	Kontseilu Soziala	Lehendakariak
2	Enplegatu guztiei jakinaraztea	Kontseilutxoak	Kontseilu Sozialeko bokalak

2.3.2 Kanpoko plantak

	EGITEKOA	BIDEA	ARDURADUNA
1	Plantako zuzendariari jakinaraztea.	Bilera operatiboak	Giza Baliabideetako zuzendaria
2	Departamentuetako zuzendari eta buruei jakinaraztea	Lankide bilerak	Planta zuzendaria
3	Pertsona guztiei jakinaraztea	Lankide bilerak	Departamentuko burua

2.3.3. Hirugarrenak

	EGITEKOA	BIDEA	ARDURADUNA
1	Hornitzaileei jakinaraztea	Irizpide orokorrak	Erosketa burua
2	Aholkulari eta ikuskatzaileei jakinaraztea	Bilera operatiboak	Harremanen arduraduna

2.3.4 Internet and Intranet

Kode honen kopia bat Copreci Taldearen Interneten eta Intranetean/Sharepoint-ean aurki daiteke

2.4 . Konpromisoa enplegatuentzat

Enplegatu guztiei Kodea irakurtzeko eskatuko zaie, bai eta bertan jasotzen diren printzipioen arabera jarduteko ere.

2.5 Konpromisoa Zuzendaritza Kontseiluko, Kontseilu Errektoreko eta Kontseilu Sozialeko kideentzat

Kodea betetzea derrigorrezkoa izango da zuzendarientzat zein Kontseilu Errektoreko eta Kontseilu Sozialeko kideentzat.



3. Jokabide arau orokorrak

Legearekiko konpromisoa

3.1 . Fabrikazio erregistroa eta lizentzia

Copreci Taldeak jarduteko lizentzia eduki beharko du, eta lizentzia horretan jasotako baldintzak bete beharko ditu.

3.2 Printzipio orokorra: indarreko legeria betetzea

Jarduera profesionalen garapenean, Copreci Taldeko edozein pertsona nabarmenek edo hirugarrenek ohiko zein noizbehinkako bizitokia eta lan lekua duen herrialdean indarrean dauden legeen berri izan beharko du eta lege horiek diotena bete, bertako langileak duintasunez eta errespetuz tratatuz.

Copreci Taldeko edozein pertsonak edo hirugarrenek, legea haustera behartzen edo bultzatzen badute, berehala jakinarazi beharko du 11.4 kapituloan adierazitako kanalak erabiliz.

3.3. Ustelkeriaren eta eroskeriaren aurka

Erabat debekatuta dago hirugarrenei opariak egitea edo hauen eskuetatik jasotzea, hau da, duen balioagatik kortesia baino zerbait gehiago dela ulertu daitekeen zerbait eskaintzea eta, gainera, norberaren aldeko edo Copreci Taldeko edozein enpresatan bere aldeko tratamendua eman diezaioten helburuarekin eskaintzea.

Copreci Taldeko konpainiek ezin dituzte alderdi politikoak finantzatu, ez eta alderdi horietako hautagaiak ere.

Erabat debekatuta dago funts eta kreditu publikoetara jotzea, Finantza Departamentuak aurretik horretarako baimenik eman ez badu.

3.3.1 Hirugarrenekin lan egitea

Copreci Taldeko edozein pertsona nabarmen hirugarren batekin harremanetan jartzen denean, hau ziurtatu beharko du: hornitzaileak Erantzukizun Sozialeko Arauak betetzen dituela egiaztatzen duen ziurtagiriren bat izan behar duela, Jokabide Kode propioa argitaratuta duela edo, hau berau betetzeko konpromisoa duela, horretarako honakoa sinatuz eta harreman komertzialak bertan jasotzen direnaren arabera egingo direla onartuz.

3.3.2 Prebentzioa eta zaintza

Taldeko planta guztietan kanalk ezarrita daude eroskeria, ustelkeria, abusu, diskriminazio eta beste edozein egoeraren gaineko salaketak jasotzeko.

Gainera, Copreci S.Coop.ek jazarpen moralari edo sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko berariazko protokolo bat du ezarrita, non jazarpenatzat zer ulertzen den, zer prebentzio neurri ezartzen diren eta izaera horretako egoera bat gertatzen denean zer prozeduraz baliatuz jardun behar den azaltzen den.

Betetze Batzordea da Jokabide Kode hau betetzen dela eta behar bezala aplikatzen dela zaintzeko organo eskuduna

4. Transakzioak eta kontrol esparru orokorra

Lege betetzea

4.1 Printzipio orokorra: indarreko legeria betetzea

Copreci Taldeko edozein enpresaren intereserako transakzioen bat eginez gero, aplikagarri zaion indarreko legeriak ezartzen duena bete beharko da eta ikuskatzeko modukoa izan behar da.

4.2 Transakzioen baimenak eta kopiak

Transakzio oro kontabilitatean jasota egon beharko da.

Transakzio orok dagokion kopia eduki beharko du. Kopia edozein unetan kontsultatzeko moduan egongo da, eta transakzioa egin, baimendu, grabatu eta artxibatu zutenak identifikatzeko aukera eman beharko du.

4.3. Lankidetzat kontrol agenteekin

Copreci Taldeko edozein konpainiak barne ikuskatzaileekin edota kanpoko agenteekin informaziorik partekatuz gero, informazio hori eguneratuta egon beharko da, egiazkoa eta zehatza izango da, langile egokiek eginda egon beharko da, eta indarreko legeria beteko du.

4.4. Konpetentzia askea eta konpetentzia leiala

Konpromisoa hartzen dugu Konpetentziaren Defentsaren arloko legeria zorrotz betetzeko eta merkatuetan leialtasunez lehiatzeko, konpetentzia askea bultzatuz eta indarrean dagoen araudia uneoro betez. Horregatik, Copreci Taldeak egungo lehiakideekin edo lehiakide potentzialekin ez du parte hartuko elkarriketa, akordio, hitzarmen, proiektu edo aliantzetan, ez prezioei, baldintza komertzialei, eskaintzei, merkatu-banaketei edo konpetentzia askea murrizten duen edo murriztu dezakeen beste edozein jarduerari dagokienez.



5. Giza baliabideak

Pertsonekiko konpromisoa

5.1 Printzipio orokorra

Copreci Taldeak Giza Eskubideen Deklarazioak jasotzen dituen oinarritzko printzipioak onartzen ditu, NBERen definizioaren arabera (Nazio Batuak, 1948).

5.2 Kontratuak: indarreko legeria betetzea

Copreci Taldeko enplegatuak eta hirugarrenak indarreko legeen arabera kontratatuta egon beharko dira, eta kontratua (edo baleko dokumentua) idatziz jasota egon beharko da.

5.3 Ordainsariak

Copreci Taldeak eta bere hirugarrenek enplegatu bakoitzak, aldi baterako langileak barne direla, hilero eskuratutako ordainsariak eta hilero egindako orduak erregistratuta eduki beharko dituzte.

5.4 Lanaldia eta aparteko orduak

Copreci Taldeko langileen eta bere hirugarrenen lanaldia edo lan egutegia ezin izango dira inoiz izan legeak onartzen dituenak baino handiagoak.

5.5 Ordainsari baldintzak

Copreci Taldeak eta bere hirugarrenek gutxienez tokiko legeriaren arabera ezarri den lanbide arteko gutxieneko soldata ordaindu beharko diete beren enplegatuei (legeak xedatzen dituen lanorduetan oinarrituta). Ordainsariak modu erregularrean ordaindu beharko dira, egindako lanaren arabera eta tokiko legeriaren arabera.

5.6 Aparteko orduen ordainketa

Copreci Taldeko enplegatuek eta bere hirugarrenek egindako aparteko orduengatik konpentsazioa eskuratu beharko dute lege baldintzen arabera.

5.7 Baimenak

Copreci Taldeko enplegatuek eta bere hirugarrenek indarreko legeriak eta tokiko tradizioek markatzen dituzten baimenak eduki beharko dituzte (adibidez, gaixotasunagatik baimenak, oporrak, amatasuna, jai ofizialak, etab.).

5.8 Onurak

Copreci Taldeak eta bere hirugarrenek legeek ematen dizkieten eskubideen arabera dagozkien onurak eman beharko dizkiete beren enplegatuei (adibidez, aseguru medikoa, gizarte segurantzak, pentsioak, etab.).

5.9 Ostatu ematearekin zerikusia duten baldintzak

Eremu honetan legerik badago, Copreci Taldeak eta bere hirugarrenek lege horrek ezartzen dituen baldintzak bete beharko dituzte.

5.10 Haurren lana

Copreci Taldeak eta bere hirugarrenek ez dute haurrik kontratatuko (1) eta erregistro bat izango dute beren langile guztien jaiotegunekin.

Gure plantetan adin txikikoren bat lanean ikusiz gero, Betetze Batzodera edo/eta Giza Baliabideetako departamentuari jakinarazi behar zaio kontratua eten dezan. Horretaz gain, adin txikiko hori lanean egotearen arrazoiak aztertuko dira eta beharrezko ekintza zuzentzaile eta prebentiboak ezarriko dira.

1. oharra: Lanaren Nazioarteko Erakundeak (LANE) lanerako gutxienezko adinari buruz 1973ko hitzarmenean hartutako akordioaren arabera, haurra da 15 urte baino gutxiago duen edozein pertsona, tokiko legeek adin gehiagokoak ere haurrak direla edo adin horretakoei eskolara derrigor joatea ezartzen zaiela esaten ez badute, behintzat. Hori gertatuz gero, nagusi izateko adina aplikatuko da.

Baliteke tokiko legeek 13 eta 15 urte bitarteko pertsonak edo 12 eta 14 urte bitartekoak lanean aritzea onartzea, betiere egingo dituzten lanek baldintza hauek betetzen badituzte:

- a) Adin txikikoaren osasunerako edo garapenerako kaltegarriak ez izatea; eta*
- b) Eskolara joatea, edo prestakuntza programetara joatea ez oztopatzea.*

5.11 Bortxazko lanak eta lan nekagarriak

Copreci Taldeak eta bere hirugarrenek:

- Ez dute bortxarik erabiliko
- Ez dute presorik erabiliko

- Ezin izango dituzte beren enplegatuek nahi ez dituzten lanak egitera behartu.

1. oharra: Bortxazko lana izango da pertsona batek bere borondatearen kontra eta zigortuko dutela mehatxatuta edo bere gauzak (NANA, pasaporteak, etab.) konfiskatuko dizkiotela mehatxatuta egiten duenean.

2. oharra: debekatuta dago hornitzaile gisa preso zibilak edo militarrek erabiltzea.

5.12 Diskriminazioa

Copreci taldeak onartzen du aniztasun kulturala eta herrialde bakoitzak bere estandar propioak aplikatzen dituela. Lan baldintzak lanpostua betetzeko norbanakoaren profilari erantzun behar diote, inoiz ez ezaugarri edo sinesmen propioei. Beraz, kontratazio, ordainsari zein onura, promozio, diziplina prozesuak eta kontratuen etetea ez dute honako ezaugarriek baldintzatuko: arraza, erlijio, egoera zibila, adina, afiliazio politikoa, jaiotokia, sexu orientazioa edo lege debekatutako beste edozein arrazoik.

5.13 Asoziazionismoa

Copreci Taldeak eta bere hirugarrenek ziurtatu egin beharko dute beren enplegatuek libreki elkartzeko aukera dutela.

5.14 Negoziazio Kolektiboa

Copreci Taldeak eta bere hirugarrenek beren enplegatuei negoziazio kolektiborako mahaletan parte hartzen utzi beharko diete(1)

1. oharra: Negoziazio Kolektiboa da enpresariak eta enplegatuen ordezkariak (langileek beren kabuz eta libreki aukeratuak) libreki egiten duten negoziazioa.

5.15 Lan leku segurua, garbia eta osasungarria

Copreci Taldeak bere bazkide eta langileei lan leku segurua, garbia eta osasungarria eskainiko die, ezarritako legedia betez eta gutxienez honako baldintza hauek bermatuz: ur edangarria, osasun-instalazioak, suteak itzaltzeko tresnak, instalazio medikuak, larrialdi irteerak, segurtasun ekipak eta aireztapen zein argiztapen gokiak.

Langileek beren lana segurtasunez egiteko beharrezko formazioa dutela bermatuko da.



6. Ingurumen kutsadura

Ura, Atmosfera, Zarata, Zoruak, Agente Kimikoak eta Hondakinak

Ingurumenarekiko konpromisoa

6.1 Printzipio orokorra

Copreci Taldeak eta bere hirugarrenek ingurumenaren alorreko legeak ezartzen dituen baimenak eduki eta bertan xedatzen dena bete beharko dute. Bereziki hauei dagokienez:

- Kutsadura Atmosferikoa
- Kutsadura Akustikoa
- Uren Kutsadura
- Lurzuaren Kutsadura
- Agente Kimikoak
- Hondakinak eta Hondakin Arriskutsuak

6.2 Errekerimenduak

Copreci Taldeak eta bere hirugarrenek hau bete beharko dute:

- Legeak ezarritako ingurumen ikuskapenak: ziurtatuta gobernuak aginduta egin beharreko Ingurumen ikuskapenen ondoriozko ekintza zuzentzaileak egingo direla; ekintza horiek dagozkien unean eginez eta egiten direnean dokumentuetan jasoz.

6.3 Etengabeko hobekuntza

Copreci Taldeak eta bere hirugarrenek ingurumenari lotuta etengabe hobekuntzak egiteko inplikaturik daudela erakutsi beharko dute:

- Igorpenak atmosferara
- Igorpenak lurzorura eta uretara
- Zarata
- Hondakin arriskutsuak eta ez-arriskutsuak
- Baliabide naturalen erabilera, esaterako, energia, lehengaiak, agente kimikoak, etab., bai eta erregai fosilen erabileraren murrizketa ere.
- Hornitzaileak lanean jarraitu beharko du sortzen dituen hondakin arriskutsuen ordez arriskutsutzat jotzen ez diren beste batzuk sortzeko.

7. Laneko segurtasuna eta osasuna

Gure pertsonak, gure lehentasuna

7.1 Printzipio orokorra

Copreci Taldeak eta bere hirugarrenek laneko segurtasun eta osasunaren alorrean legeak ezartzen duena bete beharko dute.

- Suteen prebentzioa
- Istripuen eta gertakarien kudeaketa
- Laneko segurtasun eta osasunaren alorreko prestakuntza
- Makinen segurtasun elementuak
- Segurtasuneko jarraibideak
- Norbanakoen Babeserako Ekipamenduen aukeraketa eta erabilera
- Lehen laguntzetarako ekipamendua eta langileen prestakuntza

7.2 Errekerimenduak


Copreci Taldeak eta bere hirugarrenek hau bete beharko dute:

Laneko segurtasunaren eta osasunaren legezko ikuskarpenak: ziurtatuta gobernuak aginduta egin beharreko Ingurumeneko ikuskarpenen ondoriozko ekintza zuzentzaileak egingo direla; ekintza horiek dagozkien unean eginez eta egiten direnean dokumentuetan jasoz.

7.3 Etengabeko hobekuntza

Copreci Taldeak eta bere hirugarrenek laneko segurtasun eta osasunaren alorrean lortzeko:

- Istripuen eta gertakarien kopurua gutxitzen joateko
- Eskulanaren inplikazioa areagotzea lan giroa hobetzeari begira





8. Konfidentzialtasuna

Gure pertsonengan konfidantza

8.1 Printzipio orokorra

Copreci Taldeko pertsona nabarmen oro behartuta dago bere jardunean enpresa barruan zein kanpoan kudeatzen dituen informazio garrantzitsu guztiak zaintzera, ahalik eta konfidentzialtasun handienaz.

Datuen babesari buruzko lege aplikagarriek xedatzen dutena betez, Copreci Taldeko konpainia

guztiak beren enplegatu edo hirugarrenei lotutako informazio guztia babestera behartuta daude

Copreci Taldeko edozein pertsona nabarmenek informazio konfidentziala hirugarren pertsonekin partekatu behar badu, zuzenean edo zeharka, bere arduradunari edo eman beharko dio informazio horren berri

9. Diziplina araubidea

Kudeaketa hobeagorako

9.1 Zigorrak

Copreci Taldeko pertsona nabarmenek Kode honetakoartikuluetak bat betetzen ez badute, zigorra ezarriko zaie. Zigorra desberdina izango da Copreci Taldeko planta bakoitzaren barne araubidean ezarritakoaren arabera.


10. Hornitzaileen aurre- ebaluazioa

Gure hornitzaileak, gure kolaboratzaileak

Hornitzaileen Aurre-ebaluazio dokumentuan honako ziurtagiriak eskatuko dira: Kalitatea, Ingurumena, Laneko segurtasuna eta osasuna eta Gizarte Erantzukizuna

Hornitzaileak Gizarte Erantzukizuneko arauetako ziurtagiririk ez duen kasuetarako, berak daukan Jokabide

Kodea aurkezteko aukera izango du edo kode honetara atxikitzekoa.



11. Kodearen aplikazioa. Komunikazioak eta jarraipena

11.1.- Indarrean sartzea

1.- Jokabide Kode hau COPRECI, S. COOP.eko Kontseilu Errektoreak onartu zenetik dago indarrean eta indarrean jarraituko du hura indargabetzea, berrikustea edo eguneratzea berariaz erabakitzen bada edo hura ordezkatzeko duen beste bat indarrean sartzen bada izan ezik.

2.- Jokabide Kodea betetzen ez bada, ez-betetzea edozein dela ere, Betetze Batzordeari jakinarazi behar zaio, bera baita Jokabide Kode hau betetzen dela eta behar bezala aplikatzen dela zaintzeko eskumena duen organoa.

11.2.- Jokabide Kodearen interpretazioa

1.- Jokabide Kode honen eta Compliance Program-en barruko edozein Kontrolen artean desadostasunik badago, Jokabide Kodeari emango zaio lehentasuna.

Era berean, Kontrolak Jokabide Kode honen espiritua eta helburua kontuan hartuta interpretatzeko dira.

2.- Betetze Batzordeari dagokio Jokabide Kodearen edukia interpretatzea. Interpretaziorako hark dituen irizpideak derrigorrezkoak dira hartzaile guztientzat.

3.- Jokabide Kodearen interpretazioari buruz sortzen den edozein zalantza Betetze Batzordeak ebatziko du, informazioko barne sistemaren arduradunarekin (RSII) komunikazioa izanda.

11.3.- Betetze Batzordea

1.- Betetze Batzordea da COPRECI osatzen duten Pertsonak Jokabide Kodean ezarritakoa betetzen dutela bermatzeko ardura duen organoa.

2.- Betetze Batzordeak Betetze Funtzioari dagozkion gai guztietan du eskumena. Betetze Batzordearen osaera, funtzionamendua, funtzioak eta gainerako alderdiak batzorde horren erregelamenduan arautzen dira.

Betetze Batzordeak COPRECiko Compliance Program osatzen duten kontrol guztiak egin eta proposatzen ditu, eta Copreci Taldeko edozein pertsonak edo hirugarren batek nahitaez bete beharrekoak dira.

11.4.- Ez-betetzea eta gaitutako bideen bidez komunikatzea

1.- Jokabide Kode hau ez betetzeak lan edo sozietate zigorrek ekar ditzake, Ez-betetzearen ondorioz ere egon daitezkeen zigor administratibo edo penalen kalterik gabe.

2.- Ez-betetze baten berri duen pertsona orok ezarritako bide hauen bidez jakinarazi beharko du:

- Webgunean (www.copreci.com) dagoen kanal elektronikoa ([Informazioko Barne Sistema](#)), erakunde hauei buruzko komunikazioetan aplikatu beharrekoa dena: COPRECI, S. COOP.; COPRECI CZ, SRO; COPRECI SYSTEMS SRL; MAEL COCCION SLU; MAELITZ S.L.U; SOLUCIONES TECNOLOGICAS INT ETA AUTOM SLU

- Posta helbide elektronikoa socialresponsibility@copreci.es (kanal etikoa), erakunde hauei buruzko komunikazioetan aplikagarria: COPRECI DE MEXICO, SA DE CV; COPRECI TR.LTD.STI; COPRECI CHINA; COPRECI USA; COPRECI EGYPT FOR MANUFACTURING.

3.- Jasotako komunikazioen konfidentziasuna bermatuko da.


11.5.- Gaitutako bideen gestio operatiboa eta jasotako komunikazioak izapidetzea.

COPRECik gaitutako bideen bidez jasotako komunikazioen gestio operatiboa eta izapidetzea honela egiten da:

- Kanal Etikoa: Socialresponsibility@copreci.es posta helbide elektronikora bidalitako komunikazioak Copreci Taldeko Giza Baliabideen Zuzendaritza Korporatiboak jaso eta izapidetuko ditu.
- Informazioko Barne Sistema: Webgunean (www.copreci.com) dagoen kanal elektronikoaren bidez ([Informazioko Barne Sistema](#)) bidalitako komunikazioak Komunikazioak kudeatzeko eta izapidetzeko arduradun operatibo izendatutako pertsona fisikoak jasoko ditu, eta, haiek izapidetzeko, dokumentu hauetan ezarritakoa aplikatu beharko da:
 - COPRECiko Komunikazioak Kudeatzeko Prozedura.
 - COPRECiko Informazioko Barne Sistemaren Printzipio Orokorren Politika.
 - COPRECiko ORSIlren estatutua.

11.6.- Errugabetasun presuntzioa eta ohorerako eskubidea

Komunikazioetan aipatzen diren pertsonen errugabetasun presuntzioa eta ohorerako eskubidea errespetatuko dira.



**HORNITZALEAK BERE
BEHARREKO ATALA**

Copreci taldeko Jokabide Kodea (8-garren edizioa)

NORENGANDIK:
(*Hornitzailearen izena*)

NORENTZAT: COPRECI GROUP

DATA:

Copreci Taldearen Jokaera kodea bere osotasunean betezen dugula
konfirmatzen dugu.

Arduradunaren sinadura

IZENA:

KARGUA/POSTUA:

SINADURA:

Making the usual things
extraordinary.



Headquarters
Copreci S.Coop.

Araba Ibilbidea
20550 Aretxabaleta
Gipuzkoa (Spain)

